

**BARAKALDO.** XIX. eta XX. mendeko historia jorratuko dabe urtarrilaren 28an hasiko diran jardunaldietan



VERONICA MUNOZ

Uriraren historia aztertuko dabe jardunaldietan.

## Iragana aztertu, eta geroan izan leitekeana ezagutzen

Udalarentzat ezinbestekoa da uritarrek bertako historia jakitea

Onintza Enbeita |

*Barakaldo, Historiako Protagonista* izeneko jardunaldiak egingo dabez Bizkaiko urian urtarrilaren 28an, 29an eta 30ean. XIX. eta XX. mendeetan Barakaldon jazotako aldaketa historikoakaz batera, etorkizuneko Barakaldo landuko dabe bertan parte hartzen dabenean.

Eusko Jaurlaritzako Berritzegunearen eta Barakaldoko Udaleko kultura arloaren artean antolatu dabez jardunaldiok. XVI. Hezkuntza Programan kokatu dauz Udalak. Alfonso Garcia kultur zinegotziaren berbetan, «oinarrizkoa da uritarrek euren herriaren historia ezagutzea, euren herriagaz harro egon daitezana». Haren ustez, bai Barakaldon jaiokoentzat bai gaur

egun bertan bizi direnentzat da garrantzitsua bertako historia. Barakaldo antzokian egingo dira berbaldiak aitaturako egunetan, 18:00etatik 20:00etara.

### Egitaraua

Urtarrilaren 28an, XIX. mendeko kontuak aztertuko dabez *Landagunetik urira* izeneko berbaldian. Jabi Barrio eta Iñigo Andres Ezagutu Barakaldo proiektuaren egileena izango da azalpenak emoteko ardurea.

Hurrengo egunerako, mendebeteko saltoa emongo dabe antolatzaileek, eta *Barakaldo itzartu da* izenpean azalduko dabe XX. mendeko Barakaldo. Urtarrilaren 28an, Mitxel Olabuena ga historialariak eta historia irakasleak berba egingo dau.

Urtarrilaren 30ean, *Gure Ba-*

*rakaldo: uriaren aldaketea* lemeagaz, uriaren egungo egoeraren eta etorkizunaren ganean jardungo dabe Jon Aurtenetxe unibertsidadeko irakasleak, Diego Moyano Barakaldoko Urigintza zinegotziak eta Juanma Iturralde Gernikako Berritzeguneko zientza arloko aholkulari et bilologoak.

Mikel Albirak egingo dau koordinazio beharra jardunaldiotan. Garciak azaldu daueenez, udaleko hezkuntza zerbitzuak egindako bideo bi eskainiko deusiez ikus-entzuleei jardunaldietan. Haren arabera, «ikasle eta ikastetxeei material didaktikotzat balioko deusie bideo bi horreek. Izan be, gure uriaren historiaren ganeko hainbat arlo eta datu dagoz erretan».

## Udalak salaketea jarriko dau San Bizenteko Jai Batzordearen kontra «xenofobia» dalako

Erredakzinoa |

Barakaldoko Udalak salaketea jarriko dau San Bizente auzoko Jai Batzordearen kontra. Alkatearen begietan, «arrazista eta xenofobia» da jaietarako atara daben kartela. Hori dala eta, Udalaren anagrama bertatik kentzeko eskatu deusie Jai batzordekoiei.

Astegoienean dira jaiak, eta antza danez kartelean, «pertsonea gris eta gaizto honek

nortasuna kendu gura deusie, jai herritarrak amaitzea gura dabe», jarten dau. Era berean, Carlos Pera alkateak azaldu daueenez «euskal afari magikoa maketoak etorri ez daitezana», jarri dabe kartelean jendea afarira konbidatzeko.

«Kontetan jardun natxatzunak ez etorteko, kontu kontaria», egongo dala ei dino kartelak. Perak esan daueenez, «aurrekontuetan be, gorabeherak egon dira. Ez dira bardinak

izan udaletxean aurkeztutako jai programea, eta orain kalean ipini dabena. Jai Batzordeak engainau egin dau Udala».

Alkatearen berbetan, «udalbatza ez dago prest programa horri diru laguntzarik emoteko, eta ez dator bat programeagaz beragaz». Udaletxeak ez dauela inoren kontrako jarrera baztertzailerik onartuko esan dau alkateak; eta, halandaze, «diruz be ez jake lagunduko holako ekimenei».

## Etxeko laguntzaileen behar baldintzak txar-txarrak dirala salatu dau CCOOk

Erredakzinoa |

CCOO sindikatuak gogor kritikau dau Barakaldon preminan dagozanei etxean laguntasuna emoten deusien beharginek sufritzen dabene egoera. Jakin eragin dabenez, Syasdo enpresan behar egiten dabene emakume horreek ez dabe oraindino jaso abenduko soldatea.

Danetara 50 andra dira egoera horretan dagozanak, eta sindikatuak azaldu daueenez, ez da gaurkoa bizi dabene egoera, aitaturako enpresea askotan atzeratu dalako soldatak ordaintzeko orduan. CCOO sindikatu-

ren ustez, onartu ezina da egoera, batez be kontuan hartuta, Udalak kontra dauela Syasdo enpresea Udalari jagokozan zerbitzuak eskaintzeko.

Ez hori bakarrik. Enpresa horretan behin betiko kontratua daukien beharginek hilearen lehenengo hamabostaldian jasoten dabe soldatea, eta arazo «larria» behin-behineko kontratua-gaz dagozanez sufritzen dabe, sindikatuaren berbetan.

Sindikatuak aurreratu dau Udaleko talde politiko guztiekin batuko dala, horren barri emon eta zeozer egin daiazala eskatzeko.

### LABURREAN

#### Basurtuko erizainek huelgea egingo dabe

Erizainen Sindikatuak deituta, huelgea egingo dabe gaur erizainek Basurtuko Ospitalean. Lan Hitzarmenari lotutako protesta horretan ospitaleko zuzendaritzek gitxieneko zerbitzu «lar» ipini gura izan deusie antolatzaileek. Dinonez, Osakidetzak ez dau ezer berbatzeko borondaterik azaldu. Hilearen 27an be, huelgea egingo dabe Basurtuko erizainek.

#### Boluntario gehiago joango dira Galiziara

Bilboko Udalak bidaia bat antolatu dau, asteburu honetan Galiziara galipota garbitzera joan gura dabene boluntarioentzat. Sei suhiltzailek be bidaia egingo dabe boluntarioekin, egon leitekezan ezustekoetan laguntzeko. Joan gura dabene guztiei ordua ipini deusie gaur 15:00etan Garellanoko suhiltzaileen egoitzearen aurrean. Hortik ordu erdira joango dira, Laxe udalerrirantz.

#### Santurtziko Udalak jakin eragin dau garabi zerbitzu barria martxan ipiniko dauela uda baino arinago

Santurtziko Udalak txarto dagozan ibilgailuak bidetik kentzeko garabi zerbitzu barria ipiniko dau martxan uda baino arinago. Berandu dabilz udal agintariak, hasiera baten zerbitzua pasau dan udarako ipinteko asmoa eukien eta. Baina aurrekontuetan horretarako diru nahikorik ez egoalako, azkenean asmoa atzeratu behar izan eben. Danetara, 270.455 euroko inbertsinoa egingo dabe. Jasotako ibilgailuak kaian dagozan pabilioi bitara eroango ditue. Garbitzen eta atontzen dagozan leku horretan 30 auto sartzeko beste leku egongo da.

#### Bilboko EBk zezeilean osotuko dau zerrendea

Julia Madrazo EBko zinegotziak jakin eragin daueenez, alderdiak zezeilean osotuko dau maiatzeko hauteskundeetan Bilbon aurkeztuko dauen zerrendea. Urtarrilaren hasieran programea egiteko batzara egin eben, eta laster batzar nagusia egingo dabe zerrenda osatzeko erixpideak zehazteko.

#### PSEtik kaleratutakoak, zer egin aztertzen

Sestaon PSE alderditik kaleratu zituen kideak *Aurreantza* (Hacia adelante) taldea osotu dabe, eta datorren astean erabagiko dabe maiatzeko hauteskundetara aurkeztu edo ez. Jose Luis Merino PSEko buruzagi ohiak azaldu dau joan edo ez, eta bakarrik joan edo auzo alkarteren bateagaz joan aztertzen dabilz.